

G A R O A

(JARRAIPENA)

II

BASERRIA (1)

Geroago esagutu nituan, Joanesen oroimen gozoak artara eramanda, gizon bikaiñ orren etse ta ondorengoak.

Gogordopeko zelaitso baten, garometa andi batzuen urrean, soro eder narotuz inguraturik, bene benetako patšadan zegoan Zabaleta baserria. Bere alboetan, amari gonetatik eutsika dauden aurtsoak bezela, etse nagusiarri lotuta, bestetso bi agiri ziran: bata ogi edo artoa erretzeko labea, bestea abere janariak gordetzeko lekua; ta auekandik ez urruti, zerbait mendi aldera ta beregaiñ, neguan ardiak idukitzeko ellorra. Etse nagusiarren arpegi aldetik, sarrerako ate gañean, lore ta usai gosodun belarrez egindako bi sorta legor ikusi nituan, oitura zarrari jarraituaz Done Joane goizean ipiñiak, esan ziratenez; atearen erdi erdian erantzita, argizarizko gurutze tšiki zapal bat, etsekoen kristautasuna erakutzi naian.

¿Toki aien barruan zer zegoan jakiñ bearrik bai alda? Basetsetakoak badakite, baño ez itsastarrak: ezta, bada, aiñ gaizki etorriko auentzat emen zerbait jartzea.

Labaldean etzan gauza andirik: abar batzuk, ia erdi erretako *pala* zatar bi, ta labeoia garbitzeko ipizkia (2). Janari etsean, lastoa ta belarondoa ugari, sapaian (3); atšur, eskobare, sarda, tšardango, golde, periki, besabe, gurdi, gurtezi, orrazi, kabilla ta ustariak lur-gañean. Etse nagusian, sartuta bereala, sukaldea, lasai samarra, euskal baserri gutzikoen irudira, etsebizarako ta lur-langintzarako bear ziran tresnaz betea. Bertan zeuden, su-aurrean, zumitzezko jarleku apalak eta

(1) *Basetsea* legoke obeto, bada *erririk* ezta izaten basoan, auzotegiren bat geienez ere; baña *etse* bategatik *bas-erri* esaten oitu gera ta ala esango det nik ere, noizean beñ *basetse* ipiñtzeari utzi gabe, itz egoki ori belarrietatik sartu daikigun.

(2) Ysatsa edo moltsoa.

(3) Zurrunean.

keak eta urteak leundu zuten t̄sisillo galanta, ta zapaldetan, sulla, morko ta beste urontzi batzuek, lurrezko t̄sali zabalak, erretillu andi sakonak, zurezko kollara belztuak, eta ogi, tremes edo artoa idukitzeko otarrat̄soa; ant̄sen arkitzen ziran, ormetatik bera esekita, eltze, tupiñ, padel, talo-burni, burrunntzi, burrunntzali, tanboliñ ta kresalluak; ant̄sen, baster baten, beste at̄sur, lai, ortzbiko, sega ta itariak su egur, azpantar, abarka ta soka zarren laguntasunean; ta ant̄sen egon oiziran askotan, ke zubo azpian, lurruntsu, labatzetik (1) bera zinzilika, zeziñaren it̄suran, bazerri artakoan azkiniko (2) busti ta basaz loituak.

¿Ta zer geiago? Onezkero dena ipiñi bearko degula uste det, guret-zat eman diguen et̄seko basterrak ikusten gabiltzala esan badeiteke ere. Sukalde ondoko gelat̄so batean zeuzkaten, oremai, legami (3), artiriñ, galbai ta arraskoa, ta gela ortatik atea bitarte, ukulluan, esne-bei, biant̄s ta t̄sekor gorri lodiak, belar gozoa mauska mauska jaten, t̄serit̄so bi beren ezi barruan etzanda ta ollo batzuek zitzetan asterka,

Auek danak bealdean zeuden. Goian berriz, gizategia, bost edo sei lo-gela, estut̄soak, argi gut̄sikoak, baña garbiak oso, ur bedeinkatu ontziz ta Ama Maria ta beste done batzuen irudiz naikoa poliki apainduak; eta gorago, et̄searen gallur ondoan, ganbara andi bat, mandio bezela, gari, arto, baburrun ta sagar umautak gordetzeko.

Et̄se orretan jaio zan gure artzaia, et̄se orretan sortu ziran bere gurasoak eta gurasoen gurasoak, et̄se orretara ekarri zuan, bear izan zan egunean, Garibaiko Ana Josepa, emakume marats, pīskor ta begirata, besterik iñor Garibain bazan.

Sei seme alaba eman zizkon Joanesi Ana Josepak, baña et̄sadi au guk esagutu genduanean, iru bakarrik zeuden bizirik, semeak irurak. Lenbizikoa, José Ramón, nekazaritzari jarraitzeko et̄sara eskondua, Manuel̄soren aita, Araozko neskat̄sa on batekiñ senartua zegoan. Bigarrena, Iñasio Mari, Saizkolari trebea, eskongaia oraindik, ikaskintzan ibilli oi zan luzaro Aralargo mendietan. Gastienak, Juan Andrés arri zulatzaile ospetsuak, Oñati ondoko arrobi baten zeukan irabazbidea, et̄sean lan andirik etzegoan eretietan.

Irurak ziran morrosko eder sendoak. Oñati aldeko baserrietan etzegoan Zabaletako semeak bezelako mutillik. Zazpi artoa bazan bakoitza; andi, lodikote, bulartsoak zeuden; ingurokoen artean ta batez ere be-urikoen ondoan, Erkules batzuk ziruditen; baña etzan iñor beren aita izan zan beste.

(1) Labatz, loatz, gelatsua.

(2) Azkiñikoak esaten diote Oñatin azpantarrak.

(3) Askarri.

— Bigunegi asi zaituztet-jardun oi zien arrek-edo etzerate aitaren semeak. Nik egun berean egin izan det beti emendik Bitorirako joan-etorria, oñez, ta zuek berriz zalpurdia bear dezute Bergara edo Zumaragaraño joatego. Zuen *sasoian* aterako nuan nik ipurditik Anbotoko arkaitza bera ere, ta zuek, indartsuak zeratelata, laguna bear dezute zugatz zirzill bat gurdira jasotzeko.

Badakigu esate oiek geiegizkoak zirala, baña, egiaz, bazetorkion nun-baitetik bene-benetako galera Joanesen jatorri sendoari, bada berdiñeztasun andi ta agiria zegoan artzai orren ta bere semien bitartean. Zabaleta baserria Gogordopean bezela, Joanesen azpian egon bear izan zuten semeak, indar-ausietan, arrek irurogetamar urte zituan arte. Ta gero ere, oraindik ere... jum! Naiago zukean Iñazio Marik bere indarrak aitarekiñ baño beste edozeñekiñ neurtu. Ta ez aitari itzal andia ziolako bakarrik: itzala zion ta azpiratuko otezuan hildurra zeukan.

Iru anaiak ziran Kristau onak eta... bai, eleizkoiak; baño ez gura-soak añan. Beraldera zijoaren, mallaka, mallaka, Jaunaren maitetasunean ta animako gauzai zor zaien, arretan. José Ramón zan kristaurik bero ta zintzoena, gurasoen urrengo. Au bai, au jaiero izaten zan meza nagusia ikusten, askotan *bezperak* entzuten, naikoa sarri bere utsegi-teak autortzen. Azoketara geiegi joatea kendu ezkeru, etzeukan akatsik José Ramonek. Iñazio Mari, noizean beiñ animako beroaldi on batzuek izanda ere, askozaz epelagoa zebillen geienetan. Apostu zalea zan mutilla, ta jai egunean iñon dema edo aposturik bazan, toki artara joatea gatik, erraz utziko zituan meza nagusi, *bezpera* ta beste eleiz-jai guztiak. Meza labur bat goizean entzun ta kito. Gañera, bere buruari geiegi zeritzon, arro samarra zan, ta jakiña, arrokeriak biotza betetzen duanean, toki gufñi izan oi da biotzean gure Jaungoikoarentzat. Juan Andres... etzan mutill okerra, ori ez, etzuan ezergatik bere jaiko Seleizkizuna utziko; baña ala ere beste anai biak baño otzagotzat zeukaten etñeko guztiak. Diru amesetan zebillen beti, dirua nola irabaziko, urrea nondik lortuko. Diru apur bat egiteagatik gau ta egun jardungo zukean lanean edo buruausten. Juan Andresek asmatutako dema, ziur ziur zan etñera dirua ekartzekoa.

Esagutzen zituan aitak, bazekizkian beren animetako argaltasun guztiak, eta etzuan usten beta on bat bakarra bear zana semeai esan ta erakutzi gabe. Batez ere jai andien aurrean, menditik etorrita laister abarkak aldatzen zegoala, edo apal ostean, edo ondoen zeritzonean, asten zan galdezka:

- ¿Azpiak atera aldituzue?
- Bai, jauna.
- ¿Abera jana ekarri?

— Baita ere.

— Ia ba, *konpesatzera* joan bearco diagu biar goizean. José Ramón, eramazak eurekiñ Manueltsō, bide ona ikasi dezan gizagaiñorrek. Ire, Iñazio, ezingo aiz egon arbi loreak jaio arte. Joari or Aranzazuko Mendibe A. Prailleagana: arekiñ *konponduko* aiz i... Ta utzizak beñ jokorako griña gaistoa. Jokoa ezta *errenta*, motell. Juan Andresek eta nik Oñatiko eleiz nagusian daukagu gure Aita. Biok joango gera, seme, alkarrekiñ anima aberastzera, bada animako aberastasuna ohea dek lurrekoa baño, ta iraunkorragoa, garde nai badegu. Pedro Antonek igo dezala mendira, ta emakumeak urrengo baten egingo dute beren eginkizuna.

Iru anaiak ziran izugarri langilleak, eta bear ere bazuten. Gauzak nondik eta nolatan begirutzen zaieten iruditzen zaizkigu andi edo tsiki, ta Zabaletako lurrak Arteagatik edo Aloñatik begiratu ezkeroko uts irudikoak izanarren, tsit astunak ziran bear bezela maneatzeko. Tsara, gastañadi ta belardiak neurtu gabe, Samar golde lur bazeuzkaten lantzeko; ta karobia zala, laia zala, atsurketea zala, zimaurrak eramatea zala, arto ipintze edo kentzea, gari ebakitze edo jotzea, menditik orbel, garo edo gastañak ekartzea, zeregin andia sortzen zitzaien era batzuetan. Ta berak, etsekoak, egiten zuten dana, batere auzolanik gabe.

Karobia izan ezik. Orduan bai, premiazkoa zan orduan norbaiten laguntasuna. Edonork daki: lurzulo biribill, arriz jantzia izaten da karobia, arri labea. Burua estali gabe idukitzen du, ta aurretik, be aldean, otea ta egurra sartzeko zuloño bat, ate bezela. Orretarako egun argi aukeratuetan, zamutzen dute barra guztia kare arriz, ekartzen dute otea ta egurra gurdika ta gurdika, sartzen diote ate zulotik, su ematen diote, ta an egoten dira baserritarrak gau ta egun karobi aurrean, su-garretan, ke miñetan, gorri gorri, izerditsu, lukainkari bezela koipea dariotela, beti ere otea sartu ta sartu, sua makaldu eztediñ ta beren lan guztia galdu eztakioten. Arretaz egiñ bear dana da kare erretzea, Ian gogorra da, baño baserritar geienak billatzen dute bigungarri on bat, an nonbaiten gordeta idukitzen duten ardao zatoan. Zatoa eskuetan duela ikusiko dituzue, aoa zabalik, zerura begira sarritsō, euririk egingo ote duan edo ez nonbait, bada euria kaltegarri andia da karobirako. Askotan iruditu zait neri nekeak eta suak baño zatokoak bero geiago ematen ez ote dioten. Karea ondo erretzen bada ezta andiak egiten dituzte, ta eztaietan jan galanki, edan galankiango, ta gero mosk... Orra, orraba esan isillik euki bear nuana.

Zabaletakoak etziran ainbeste ardotara emanak, eta berentzat baño geiago izan oizuen ardoa auzoetako laguntzallientzat.

Karobikoa baiizen lan gaistoa da gari ebakitzekoa, baño orduan ere etzuten ardo edate andirik egiten Zabaletan. Lana bai zintzo. Jaikitzen ziran goizean goiz, iruterdietarako bai, lo aspertu bat egiñ gabe; joaten

ziran, gozari t̄siki bat eginda, soroetara, intza zegoan bitartean, eguskiak erten baño lenago, belar gaistoak kentze (1), azkenengo artajorratze edo beste orrelako lanen batzuk aurreratzeko asmoan; zazpiterdietatik zortziretara jaten zuten gozari obea-baratzuri zukua (2) ta pertzakada bat arto-esne; — ta ordurartekoa ezer ezpazuten it̄suretan, guztiak errenkadan jarri, zumea bezela oker oker egiñ, beren buruak ia anketan ipiñi, ta asten ziran biziro ta jarraitzen zuten gogotsu, *rist* eta *rast*, bata bestearen leian, alkarri destañaka, jeupadaka, irrintzika, zeñek geiago irauñ, zeñek zail geiago ebaki, nor gariko geiago lotu, nor nekezago aspertu, burugañetik eskukada garia azkar jiratuaz, eguskitan itaiari argi eragiñaz, kopetako izerdi galanta besoarekiñ kenduaz, eten gabeko arlo luze neketsuan eguardiko amabi orduak Oñatiko eleizan jo arteraño. Ta bitartean, gosetzen zanari etzitzaion debeketzen ogi-amesa, ta egarritzen zanak an izaten zuan ur-t̄sangilla arekaren baten, belarrez estalduta, bertako ur epelari maitero maitero zangada on bat eman nai bazion.

Eguardiko amabi amabietan gelditzen ziran lenbiziko atsedena egiten. Jartzen ziran lurrean zabal zabal, aurretiaz begiz jotako kerizpe batean, ipintzen zioten zamau zuri garbiaren gañean janaria, ta iru edo lau *Aita gure* esan ondorean; ia mutillak! ura izaten zan jan-ontzitik aora ta aotik jan-ontzirako joan-etorri gogotsua, ura iruntzi bearra, ura besoak luzatzea, ura ostera bakoitzean altzuen aña ateratzea! Etzan bidean ezer asko galduko, ez: oso ederki ikasia zeukaten kut̄sara zabalaren azpiko aldetik arto zati andia jartzea. ¿Zer jaten zuten? Ori ere bada ba jakinaia. Ogi zukua lenbizi, baburrun gorria edo baba beltza urrengo, urdai azpikoa gero, ta sagar erreak edo gaztai zati bat azkenean, sagardoaren laguntasunarekiñ. Etziran oraindik Zabaletara eldu gaurko baserrietan izaten diran arrautzopill, aragizerra, tripaki gozo ta beste orrelako, Ana Joseparen iritziz, geiegizkeriak. Gauza oiek eta geiago auzoko edo erbestekoak ziranean; et̄sekoentzat naikoa zan artoa ta babea, ugari eman ezkeru.

Ta egiaz Zabaletako mutillak etzuten geiagoren bearrik, betetze on bat eginda bereala, bata or ta emen bestea, lo kuliska bat egiteko asmoetan, zugatz azpian etzaten ziranean. Laster asko entzuten zuan aitak, pipa erretzen zegoala, elt̄soen zunburrunarekiñ batean semien lo-zurrunga lodia, ta baita laster deitu ere lengo lanbideari jarraitzera. Lasterregi, semien ustez.

Kentzen zuten orduan aiek, astiro astiro, buruko estalkia, nagiak

(1) Aien, saiñgorri, belaunbelar, barrabasbelar ta orlakoak.

(2) *Sopa*.

botatzen zituzten, zorrotzen zituzten *dranga*, aingura gañean, itaien aoak, jaikitzen ziran noizbait gizonok, eta berriren berriz asten *dranga* ziran beran lanean; ez asi bakarrik, asi ta ekiñ, ekin ta jarraitu, aurrera ta aurrera beti, ez goizean baizen alai ta adoretzu; bana bai ederki oraindik, iñoren aurrean ez lotsatzeko era onean ta beste edozeiñ basetseko mutillek bano geiagoan. Iñork etzukean, ezergatik, nekatu zala esango; baña arratsalde erdirako bat edo bati, izerdia kentzen zebilela, ertetzen zion onelako esakera batek: *bero zeok gaur, arraietan!* edo: *zail luzea dek au, egun batean dana egiteko.*

— ¿Aspertu altzerate? — esaten zien aitak, farre antzean. — Zaudete piska bat, nai badezute, nik jarraituko det.

Danak jarraitzen zuten ¿Nola ez?

¿Ta siñistu aldeakegu? Orrelako lan gogorrean egun guztia igarota gero, apal ostean, illunabarrean, Joanes zarrak, pipea piztuaz, esneontziak lepoan zituala, artzen zuan mendirako aldapa latza, bere seme gasteak, oso auldurik, abereai jana emanda laster, lotarako prestatzen ziran bitartean.

Ezta ainbesterekin amaitzen gariak ematen duan eginkizuna. Metatu behar dira garikoak; eguskitan legortu bear dira oraindik; arrian jo bear da gogotik galburua, zudur, belarri, ao ta kolkoa arotzez (1) beteaz; mallatu bear dira iregurrarekiñ (2) gal-ondarrak, alea galbai edo arrasakoan garbitu bear da, ta nik eztakit beste zenbat lan ematan dituan gariak mandiora sartu orduko.

Berebizikoa ibiltzen zan zeregin andiko egun oietan Zabaletako Ana Josepa. Ta barkatu, irakurlea, beragatik lenago ezer esan eztizutalako. Ez beragatik, ez etše artako beste emparauakgatik. Zabalatakoak ziran, aitatu ditugun gizon oiezaz gañera, Katalin, José Ramonen emastea, etšeokoandre on gaste beiala, ta bere semetšo Manuel, bederatzi urteko mutill soster polita. Orren urrango izan zituen aurtšoak tšarranpinak eraman zizkaten zerura.

Ta guazen oraiñ Ana Josepagana. Berebizikoa, nion, ibiltzen zala lan andi egunetan. Goizeko irurak baño len asten zan deadarka, otoizka ta aginduka, gauza bata bestearen gañean esaten ta egiten zuala, aora edo burura zetorkion bezela. Jakiña zan asierea:

— *Gurutze santuaren señaileagatik, gure etzaietatik...* — Inšio, jaiki ari, eguna dek eta — *libra gaitzatzu gure Jauna ta Jaungoikoa.* — Kataliñ, piztu zan sua, tšerrienzat zerbait gerta dezagun. Ta ez astu ukulluko tšarkarta ekartzea. — *Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi*

(1) Aukaz.

(2) Tralluarekiñ.

zure izena... — José Ramon, abereai botaiek zerbait, gero eztek astirik izango ta... *betor gugana zure erreinoa...* ¿Auspoan billa alabill? Ara non daukan, emakumea... — Ta orrela beti, itz, arren ta zeregiñetan beñere aspertu gabe. Irurogetasei urte bazeuzkan ta etzuten soroetara eramaten, baña bazuan zeri ekiñ etše barruan. Berak egiten zituan oiak, berak tšukundu etšea, berak beiak, jetši, berak gosaria gertatu. Ana Joseparen ustez, arrek bezelako baratzuri-zuku gozorik egiteko emakumerik etzan oraindik sortu. Ezta sortuko-ere. Ta orea berak bezela ¿nork egiñ? ¿Taloak zeñek erre? ¿Esnetarako artoa, me me, zeñek ebaki? Eziñ zuan arrek, zion, onelako edo alakoren etšean ezertšore jan: *estopaua* tipulaz betea, urdai azpikoa erreigia, arrautzopilla koipe geiegirekiñ, naskatzeko bezela, billatu oizuan. Etzekiten da. Jaio egiñ bear orretarako ere.

Baña biotz ederraren jabea zan gure etšekoandre zarra, garbia, beartsuentzat oso emankorra, etšekoentzat eutsia, batzuetan eutsiegia. Ala zioten beintzat Zabaletako aita semeak, eta aiek bazekiten.

— Jolas andiak izaten dira gurean-esan oizuan José Ramonek-zerbait erosi bear degunean. Amak gordetzen du katu-larrua, ta ezin izaten zaio askatu erazi.

Beti aigera:

— Ama, dirua bear degu ba oraiñ ere.

— ¿Dirua? ¿Beti dirua? ¿Zertako?

— Manueltsori praka batzuk eta abarketak erosteko.

— Ama Kataliñek egingo dizka prakak eure batzuekiñ.

— ¿Jai egunetarako ere bai?

— Baita. Ondo ederrak dauzkak jantzi naiazta ganbarako aga zarrean.

— ¿Ederrak, ama, atze ta aurre arabakiz beteak daudeta?

— Ezta ajola.

— ¿Ta abarketak?

— Eztauzka oraindik aiñ zarrak.

— Zarrak eztauzkala? Ator Manuel, Begiratu beio, ama, ara nola biatzak agiri dituan.

— Josiko dizkat biarko.

— ¿Biatzak?

— Ara beste... argi-iturri.

— Tšapelare beardu.

— ¿Zer? ¿Tšapela? Aita ta semea... ¿Noiz erosi nion nik azkenengoa?

— Oraiñ bi urte.

— Orain bi urte ¿ta ostera tšapel berria? Ondatuko zenduteke zuek

Drotsillen aberastasunare.

— Ez berorren eskuetan balego.

Azkenetako, Manueltsok berak esatenzion, negar mušinga:

— Erosi beit, amona. Zazpikineko mutillak berri berria dauka, ta nik zar zarra. ¿Erosiko aldit?

— Ez, ez, eztiat erosiko: alperrik abill.

Baña erosten zion bai. ¡Ez erosi bear, alajaña, bere illoba bakarrari!

Ta ¿nork esango zukean, etsekoentzat onelakoa izanda, agertzen ziran beartsu guztiai ematen ziena baño geiago eman naian zebillela beti? Bazekiten ondo inguruetakoa eskaleak. ¡Amaika eskalari eskupekoa emanda gaiñera bete zien urdalla Ana Josepak Zabaletako sukaldean, ta baita lo ederra eragiñ ere aldemeneko guk esagutzen degun sapaian artan!

Bazezakean. Etsejauntzako semea zan Joanes. Berea zuan baserria, bereak lurrak, berea basoa. Lan gogorrean bizi izanagatik, artara oitua ta berez gogotsua zalako, etzeukan ogi gabe gelditzeko bildurrik. Pedro Antonek esaten zuenez, Andre Ana Josepak bazeukan urre mordoskaren bat norbaiti emanda ere, edo non edo non ondo gordeta.

Pedro Anton etseko morroi zar maitea zuten, etseko seme bezela. Etzan esagun Zabaletan zein zan seme ta zein morroi. Mai baten jaten zuten guztiak, guztiak berdin lo egiñ, danak egun osoan lanean jardun, danak berdin samarrean jantzi ta bear zan orduan alkarri lagundu. Etse artan zarrenak ziran nagusi, ta beste danak anai-arreba kristau, paketsu ta zorionekoak.

Gurutzearen itzalpean zegoan Zabaleta baserria. An zeukaten gurutzea, sarrerako ate gañean, egiazko anaitasuna erakusten. Eztegu nai ukatu an ere bazirala argaltasun ta griña batzuek. ¿Non ez? Baña Jaunaren legea zan Zabaletako argaltasunen sendatzalle ta griña gaistoen lokarri, euskal basetse geienetan bezela.

¡A! ¿Zer izango litzateke gure baserrietan Jaunaren legeto ezi biguna urratuko balitz?

DOMINGO DE AGUIRRE.

(Iarraituko da).

